

Ordena z.  
Nº orden

# HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA *PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS*

## Erdi Mailako Zikloak / *Ciclos de Grado Medio*

### Hizkuntzalaritza / *Lingüística*

## Euskera eta Literatura / *Lengua Vasca y Literatura*

---


<b>NAN / DNI</b>		<b>Izena / Nombre</b>	
<b>Abizenak / Apellidos</b>			
<b>Sinadura / Firma</b>			

2024ko apirila / *abril de 2024*



**A. Irakurri testua eta erantzun galdera hauei.**

**OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAREN ARABERA, MUNDU MAILAKO OSASUNERAKO, MEHATXU LARRIA DA BAKARDADEA**



**Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) berriki adierazi duenez, "bakardadea mundu mailako osasunerako mehatxu larria da", eta arazo horri konponbidea jartzeko hainbat egitasmo jarri ditu martxan.**

Egoerari aurre egiteko nazioarteko komisio baten sorrera iragarri dute. Horren buruak Vivek Murthy, Estatu Batuetako zirujau burua, eta Chido Mpemba, Afrikar Batasuneko gazte komisioaren kidea, izango dira. Biek modu paraleloan egingo dute lan isolamendu sozialak eragiten dituen osasun arriskuak hautemateko eta horiei irtenbide eraginkorrak bilatzeko.

OMEren arabera, taldea 11 aditu, politiko, iritzi buru eta defendatzailez eratua egongo da, eta hiru urteko iraupena izango du. "Isolamendu sozialak eta bakardadeak osasunerako eta ongizaterako kalte larriak ditu mundu osoan. Konexio sozial ahulak dituztenek arrisku handiagoa dute bihotzekoak jotzeko, antsietaterako, demenziarako, depresiorako, beren buruaz beste egiteko...", baieztatu zuen Tedros Adhanom Ghebreyesus-ek, OMEren zuzendari orokorrak. OMEren komisio horrek konexio sozialak berrezartzen lagunduko du mundu mailan.



**7. Bilatu testuan: (1 p.)**

- Bi izen:
- Izenlagun bat:
- Izenondo bat:
- Aditz jokatu bat:

**8. Idatzi sinonimo bat hurrengo hitz bakoitzerako: (1 p.)**

- Hauteman:
- Aukera:
- Komisio:
- Irtenbide:

**B. IDAZLANA. Hauta ezazu aukera hauetako bat. (5 p.)**

**B.1. Nerabeak eta mugikorra. Gehiegizko erabilerari eta zor ditzakeen arazo zein arriskuei buruzko testu bat idatzi behar duzu. Gutxienez, 120 hitz izan behar ditu.**

**Galdera hauei erantzun diezaiekezu:**

- Zure ustez, zein da mugikorra erabiltzeko adin egokia?
- Zein iritzi duzu gurasoek adingabeak kontrolatzeko dituzten aplikazioei buruz?
- Mugikorraren gehiegizko erabilerak menpekotasuna eragin dezakeela uste duzu?
- Sare sozialak kontsumitzeak zein arazo zor ditzake?

**B.2. Adimen artifizialari (AA) buruzko testu bat idatzi behar duzu. Gutxienez, 120 hitz izan behar ditu.**

**Galdera hauei erantzun diezaiekezu:**

- Zeintzuk dira adimen artifizialaren alde onak eta txarrak?
- Adimen artifiziala gizakia ordezkatzera iritsiko dela uste duzu?



- Adimen artifiziala arautuko du Europar Batasunak. Zein iritzi duzu?
- Zure ustez, zer muga jarri behar zaio adimen artifizialari?

**Kontuan izan:**

- Testuaren zirriborroa egin ideiak antolatzeko.
- Sarrera egin gaia kokatzeko.
- Ideiak paragrafotan antolatu.
- Birpasatu ondo akats ortografikoak, puntuazioa eta idazkera.
- Saiatu egitura eta lexiko aberastasuna zaintzen.

(Tarte zuri hau zirriborroa egiteko erabil dezakezu)



